



**EUSKARABIDEA–EUSKARAREN NAFAR
INSTITUTUAREN ETA EUSKO
IKASKUNTZAREN ARTEKO HITZARMENA
NAFARROAKO HIZKUNTZEI BURUZKO
IKERKETA JARDUERAK EGITEKO
2023.URTEAN.**

A) XEDEA:

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmenaren oinarri orokorrak ezartzea eta sinatzaileek ontzat jotzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea, Eusko Ikaskuntzak Nafarroako Foru Komunitatean duen jarduna eta Eusko Ikaskuntzaren funtzionamendu onerako baliagarriak diren jarduera orokorrak gauzatzeko aldera.

B) ZIOEN AZALPENA:

Erakunde biek azaltzen dute:

1. Nafarroako Foru Diputazioa izan zela 1918an Eusko Ikaskuntza sortu zuten erakundeetako bat.
2. Eusko Ikaskuntzaren xedea euskal gizartearen eta kulturaren adierazpide guztien iraupenak eta finkapenak duten garrantziaz jabeturik, gogoeta, ikasketa, ikerkuntza, prestakuntza eta zabalkundearen bidez haien kohesioa, eraldaketa eta modernizazioa sustatzen dituzten guztiak elkartzea dela.
3. Eusko Ikaskuntzaren jarduerak, gure kulturaren ezaugarri nabarmenak eta gizarte, ekonomia, politika eta kultura alorretako ikuspegia ez ezik, estrategikotzat jotzen diren kultura unibertsalaren gainerako elementuak ere aintzat hartzen dituela.
4. Funtsean diziplina anitzeko proiektu eta jardueren inguruan egituratzen dela. Eusko Ikaskuntza, gizartearen zeharkako arazoetara argi eta garbi bideratuta.

**CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA –INSTITUTO
NAVARRO DEL EUSKERA Y EUSKO IKASKUNTZA-
SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS PARA
ACTIVIDADES DE INVESTIGACIÓN SOBRE LAS
LENGUAS DE NAVARRA EN 2023.**

A) OBJETO:

El presente Convenio tiene por objeto establecer las bases generales del convenio entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, así como regular el marco de compromisos que los firmantes asumen para posibilitar la actividad de la Institución en lo que a la Comunidad Foral de Navarra concierne, así como las de carácter general que sirvan para el buen funcionamiento de la Institución.

B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Ambas instituciones exponen:

1. Que la Diputación Foral de Navarra fue una de las instituciones que fundaron Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos en 1918.
2. Que Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos tiene por finalidad la agrupación de quienes, siendo conscientes de la importancia de la pervivencia y consolidación de las sociedades y cultura vascas, promueven su cohesión, transformación y modernización por medio de sus actividades de reflexión, estudio, investigación, formación y divulgación.
3. Que en la actividad de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, además de los diversos elementos relevantes de nuestra cultura y de la perspectiva social, económica, política y cultural, se atienden cuantos elementos de la cultura universal se consideran estratégicos.
4. Que Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos se organiza en torno a proyectos y actividades que tienen fundamentalmente carácter interdisciplinar, con una clara orientación a abordar problemas transversales de la sociedad.



5. Eusko Ikaskuntzaren berezko hizkuntza euskara dela, gaztelania eta frantsesa ere haren hizkuntza ofizialak izanik. Eta Eusko Ikaskuntzak euskararen inguruko ikerketak eta hausnarketak bideratzea dituela helburu.

6. Alde biek, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Eusko Ikaskuntzak ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duten lege esparrua, gaitasuna ematen diena bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko eta hitzarmenaren zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

C) INDARREKO ARAUDIA

Hitzarmen hau ondokoan ezarritakoaren arabera arautuko da:

1. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa. Foru lege horren 1. artikuluko 2. idatz-zatian ezartzen da zeintzuk diren foru legearen helburu nagusiak, euskararen ezagutzari, erabilerari, berreskurape-nari, garapenari, sustapenari, eta erabilerari eta irakaskuntzari dagokionez, borondatezkotasun, gradualtasun eta errespetu irizpideen arabera; Nafarroan euskarak duen errealitate soziolinguistikoarekin bat.
2. Eusko Ikaskuntza onura publikoko, xede orokorretako eta irabazi asmorik gabeko Elkarteak 2022ko ekainaren 11ko Batzar Nagusian onetsitako araudia bete behar du.
3. Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuaren arabera, aipatutako erakundeari dagozkion eginkizunen artean dago euskara bizitza sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio- eta sentsibilizazio-programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.

5. Que el euskera es la lengua propia de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, siendo el castellano y el francés asimismo lenguas oficiales de la entidad. Y que Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos tiene como objetivo canalizar las investigaciones y reflexiones realizadas en torno al euskera.

6. Que ambas partes, Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, reconocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma del presente Convenio, y para el desarrollo de cuantas iniciativas lo complementen.

C) NORMATIVA APLICABLE

El presente Convenio se regirá por todo lo establecido en:

1. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, que establece en su artículo 1º 2 los objetivos esenciales de la misma relativos al conocimiento, uso, recuperación, desarrollo, fomento, uso y enseñanza, con arreglo a los principios de voluntariedad, gradualidad y respeto; y de acuerdo a la realidad sociolingüística del euskera en Navarra.
2. Asociación de Utilidad Pública Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, de fines generales y que carece de ánimo de lucro debe cumplir lo establecido en sus Estatutos aprobados en la Asamblea General de 11 de junio de 2022.
3. El Decreto Foral 303/2019, de 6 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, asigna al Organismo, entre otras, la función de realizar programas de información y de sensibilización sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como colaboración con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.



4. 2019-2023 legealdiko Nafarroako Gobernurako Programa Akordioak honakoa aurreikusten du: Erakunde publikoekin eginiko hitzarmenei jarraitutasuna eman, edo, dagokion kasuetan, arlo publikoarekiko modu subsidiarioan, euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte-entitateekin eginikoei.
5. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
4. El Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra de la legislatura 2019-2023 destaca la necesidad de dar continuidad a los convenios con instituciones públicas y/o en su caso, de manera subsidiaria a lo público con aquellas entidades sociales con responsabilidad en el euskera.
5. Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

D) HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldia 2023ko abenduaren 31n amaituko da.

Diruz lagunduko diren gastuak 2023ko urtarraren 1etik 2023ko abenduaren 31 artean sorrarazitakoak eta ordaindutakoak izanen dira.

Hitzarmen honen kontra egin ahal izanen du aldeetako edozeinek, hitzarmenaren epemuga baino hiru hilabete lehenago.

E) AURREKONTUA

2023rako aurrekontua 55.000 eurokoa izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2023ko Aurrekontu Orokorren "Eusko Hizkuntzarekiko hitzarmena, Nafarroako hizkuntzei buruzko ikerketa jarduerak egiteko" izeneko B30002 B3200 4816 334100 kontu-sailaren kargura.

F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK

1) ANIZTASUNAREN KUDEAKETA DEMOKRATIKOA NAFARROAN

Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan egitasmoak bi ardatz nagusi hauetan jarri du azpimarra: bizikidetza aniztasunean, eta kultura demokratikoa. Helburu orokor gisa, Nafarroako Gobernuari eskaini nahi izan zaio herritarren arteko bizikidetzan lagun lezakeen gutxieneko balio marko baterako hurbilketa, hori baita edozein proiektu partekatu baterako baldintza nagusietakoa.

D) PLAZO DE DURACIÓN DEL CONVENIO

La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de diciembre de 2023.

Serán gastos subvencionables los generados y satisfechos entre el 1 de enero de 2023 y el 31 de diciembre de 2023.

El presente Convenio podrá ser impugnado por cualquiera de las partes tres meses antes de la fecha de su vencimiento.

E) PRESUPUESTO

El presupuesto para el año 2023 será de 55.000 euros, con cargo a la partida B30002 B3200 4816 334100, denominada "Convenio con Eusko Ikaskuntza para actividades de investigación sobre las lenguas de Navarra" de los Presupuestos Generales de Navarra para 2023.

F) ACTIVIDADES QUE SERÁN OBJETO DE SUBVENCIÓN

1) GESTIÓN DEMOCRÁTICA DE LA DIVERSIDAD EN NAVARRA

El proyecto *Gestión democrática de la diversidad en Navarra* busca poner el acento en dos ejes fundamentales: la convivencia en la diversidad y la cultura democrática. Como objetivo general, se ha querido ofrecer al Gobierno de Navarra un acercamiento a un mínimo marco de valores que contribuya a la convivencia entre la ciudadanía, una de las principales condiciones para cualquier proyecto compartido.



Urteotan egindako lanean islatu da Nafarroan azaltzen den bizikidetzaren gatazkaren arrazoi ildo garrantzitsu bat –ez bakarria– nazio identitateari eta gizartearen polarizazio ideologiko mailari lotua dagoela.

Gatazka hori gainditzeko bidean, beharrezko jotzen da hiru gai hauen inguruan gogoeta egitea: gizarte konfiantza, euskararen balizko politizazioa eta Nafarroako Administrazioaren zeregina.

2023ko proiektuak ondoko helburuak ezartzen ditu:

1. Aniztasunaren kudeaketa demokratikoaren inguruan jaso ditugun baieztapenak, kezkek, zalantzak, proposamenak eta iradokizunak sailkatzea, eta aurrera egiteko eduki litzaketen aukerak baloratzea. Hartzailen nagusia Nafarroko Administrazioa izango da, baina, harekin batera, arlo politikoko eragileei ere bideratuko zaie jasotako aholku eta iritzi multzoa. Informazioa jaso dugu:
 - a. Antolatu diren Herritar Mahaietatik, Eragileen Forotik, Aditu Taldeetatik, Aholku Batzordetik eta Gazteen Taldeetatik.
 - b. Aurreko taldeetatik jasotako baieztapenak kontrastatzeko, Nafarroako arlo politikokoaren espektro osoan ordezkariekin egin ziren elkarrizketetatik.
2. Proposamen horiek guztiak ikuspegi anitza duten eta arloan aditu diren pertsonekin eztabaidatzea, eta era berean, iradoki litezkeen neurrien arazo edo arrisku posiblei buruz gogoeta egitea.
3. Talde Eragileak prozesu guztian landu dituen gaien inguruko problematika laburbiltzea, ateratako ondorioen eta sortutako zalantzen inguruko gogoeta egitea, bildutako proposamenak sailkatzea, eta orain arteko ibilbidetik hausnarturiko iradokizunak biltzea eta liburuxka modura argitaratzea.

En el trabajo realizado en años anteriores ha quedado reflejado que una causa importante – no la única – del conflicto de convivencia que se vive en Navarra está ligada a la identidad nacional y al nivel de polarización ideológica de la sociedad.

En busca de superar este conflicto, se considera necesario reflexionar sobre tres cuestiones: la confianza, la posible politización del euskera y el papel de la Administración navarra.

El proyecto de 2023 establece los siguientes objetivos:

1. Clasificar las afirmaciones, inquietudes, dudas, propuestas y sugerencias recibidas sobre la gestión democrática de la diversidad en Navarra, valorando sus posibilidades de avance. El principal destinatario será la Administración Navarra, pero junto a ella el conjunto de consejos y opiniones recibidas se dirigirán también a los agentes del ámbito político. Hemos recibido información:
 - a.- Desde las Mesas Ciudadanas, el Foro de Agentes, los Grupos de Expertos, el Consejo Asesor y el Grupo de Juventud organizados.
 - b. Para contrastar las afirmaciones recibidas de los grupos anteriores, de las entrevistas que se realizaron con representantes de todo el espectro político de Navarra.
2. Debatir todas estas propuestas con personas expertas en la materia que tengan una visión plural y reflexionar sobre los posibles problemas o riesgos de las medidas que se puedan sugerir.
3. Resumir la problemática en torno a los temas tratados por el Grupo Operativo a lo largo de todo el proceso, reflexionar sobre las conclusiones obtenidas y las dudas surgidas, clasificar las propuestas recogidas, recoger las sugerencias reflexionadas desde el recorrido hasta la fecha y publicarlas en forma de folletos.



GAUZATUKO DIREN EKINTZAK TALDE ERAGILEA

FUNTZIOAK

Proiektuaren definizioa, koordinazioa eta zuzendaritza, metodologia zehaztea, mintegiaren diseinua eta azken liburuxkaren erredakzioa.

OSAKETA

- Julen Zabalo, UPV/EHUko irakaslea eta Parte Hartuz ikerketa taldeko arduraduna.
- Txoli Mateos, soziologoa.
- Amaia Nausia Pimoulier, Eusko Ikaskuntzako proiektu arduraduna.

MINTEGIA

Proiektuan zehar parte-hartutako pertsona esanguratsuekin batera, ikuspegi berritzaile eta kritiko bat eskainiko duten adituak eta eragileak batuko ditugu Talde Eragileak osatu dituen proposamenek izan dezaketen ibilbidea aztertzeko:

- Talde dinamikak
- Osoko bilkura

Taldea osatzerako garaian Nafarroako lurraldearen aniztasunean eragiten duten hainbat faktore kontuan izanzen dira, eta horien arteko oreka bilatuko da: lurraldea, generoa, nazio identitatea, kultura, erlijioa eta ideologia.

AZKEN TXOSTENA

Gaian adituak izan daitezkeenekin batera, proiektuaren Talde Eragileak proiektuaren emaitzen inguruko hausnarketa sakona eskainiko dut bere iradokizunekin batera.

2) NAFARREN ARTEKO BALIO PARTEKATUAK

Nafarroan, bi hizkuntza propio izanik (gaztelania gehiengoan eta euskara gutxiengoan), euskararen babesaren eta sustapenaren inguruan, adostasunekin batera,

ACCIONES PREVISTAS GRUPO MOTOR

FUNCIONES

Definición, coordinación y dirección del proyecto, definición de la metodología, diseño del seminario, y la redacción de la publicación con las propuestas finales.

COMPOSICIÓN:

- Julen Zabalo, profesor de la UPV y responsable del grupo de investigación Parte Hartuz.
- Txoli Mateos, socióloga.
- Amaia Nausia Pimoulier, responsable de proyectos de Eusko Ikaskuntza.

SEMINARIO

Junto a las personas significativas participantes en el proyecto, reuniremos a expertos y agentes que aportarán una visión innovadora y crítica para analizar el recorrido que pueden tener las propuestas que ha unido el Grupo Motor:

- Dinámicas de grupo
- Pleno

A la hora de conformar el grupo se tendrán en cuenta una serie de factores que inciden en la diversidad del territorio navarro y se buscará el equilibrio entre los mismos: territorio, género, identidad nacional, cultura, religión e ideología.

INFORME FINAL

Junto con los posibles expertos en la materia, el Grupo Operativo del proyecto ofrecerá una profunda reflexión sobre los resultados del proyecto junto a sus sugerencias.

2) VALORES COMPARTIDOS DE LA CIUDADANÍA NAVARRA

En Navarra, con dos lenguas propias (el castellano en su mayoría y el euskera en su minoría), los consensos en torno a la protección y promoción del euskera suelen ir acompañados de divergencias

desadostasunak ere gertatu ohi dira aspaldidanik Nafarroako eragile linguistiko eta soziopolitikoaren artean; eta, beste maila batean, gizarte zabalean ere jarrera desberdinak agertzen dira herritarren artean.

Ikerketa honen abiapuntuko ikuspegia da gizarte batean hizkuntza aniztasuna gertatzea ez dela gatazkaren sinonimoa izan behar, maiz inplizituki ulertzen den bezala, baizik eta aberastasun sozialaren iturria, hiztun talde desberdinek partekatzen dutena bilatu eta kudeaketa egokia egiten badute.

HELBURUAK

2023ko proiektuak ondoko helburuak ezartzen ditu:

- Nagusia:
 - Identifikatzea eta aztertzea nafarren arteko balio partekatuak euskararen sustapenari buruz.
- Partzialak:
 - Adostasun eta desadostasun sozialak lortzen dituzten euskararen sustapenari buruzko balio edo diskurtso desberdin nagusiak identifikatzea eta aztertzea.
 - Balio edo diskurtso desberdinen banaketa soziala aztertzea: hizkuntza taldeen arabera (euskaldunak, gaztelaniazko hiztunak); adin taldeen arabera; generoen arabera, eremu soziolinguistikoen arabera.

GAUZATUKO DIREN EKINTZAK

ZUZENDARITZA KOLEGIATUA

FUNTZIOAK

Proiektuaren definizioa, koordinazioa eta zuzendaritza, metodologia zehaztea, eztabaida taldeak osatzea eta azken txostena idaztea.

desde hace años entre los agentes lingüísticos y sociopolíticos de Navarra; y, a otro nivel, en la sociedad también se manifiestan posturas diferentes entre la ciudadanía.

La perspectiva de partida de esta investigación es que el hecho de que se produzca diversidad lingüística en una sociedad no debe ser sinónimo de conflicto, como a menudo se entiende implícitamente, sino fuente de riqueza social si se busca lo que comparten los diferentes grupos de hablantes y hacen una gestión adecuada

OBJETIVOS

El proyecto 2023 establece los siguientes objetivos:

- Principal:
 - Identificar y analizar los valores compartidos entre la ciudadanía navarra sobre la promoción del euskera.
- Parciales:
 - Identificar y analizar los principales valores o discursos sobre la promoción del euskera que alcanzan consensos y desacuerdos sociales.
 - Análisis de la distribución social de los diferentes valores o discursos: por grupos lingüísticos (euskaldunes, castellano parlantes); por grupos de edad; por género, por ámbitos sociolingüísticos.

ACCIONES

DIRECCIÓN COLEGIADA

FUNCIONES

Definición, coordinación y dirección del proyecto, definición de la metodología, creación de grupos de discusión y redacción del informe final.



OSAKETA

Zuzendaritza zientifiko kolegiatua:

- Xabier Erize, soziolinguista, Filologian doktorea.
- Carlos Vilches, soziologoa, Soziologian doktorea.

AZTERKETA KUALITATIBOA: TALDE TRIANGULARRAK

Proiektu honetan proposatutako helburuei erantzuteko, metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartu behar dira.

Aurtengo ekintza nagusia azterketa kualitatiboa izan da. Sortzen edo eraikitzen ari diren diskurtsoak aztertzeke, talde triangularrak, talde sozializatuak ere esaten zaienak, bereziki egokiak dira eta horiekin lan eginen dugu.

Talde triangular ezberdinak egitea aurreikusten dugu. Horiek diseinatzeko, kuota selektiboak hartuko dira kontuan, hala nola: adina, generoa, jatorria, euskara jakitea/ez jakitea, edo Nafarroako eskualdeak. Saioak, proiektuko zuzendari zientifikoek gidatuta eta koordinatuta, digitalki grabatuko dira eta hitzez hitz transkribatuko dira. Azkenik, talde-saioetan sortutako testuei diskurtsoaren analisia aplikatuko zaie.

AZKEN TXOSTENA

Prozesu guztia jasoko duen txosten idatzia.

3) IKERKETA ETA MINTEGIA: KULTUR ESKUBIDEEN MARKOAREN ZEHAZTAPENA ETA KULTUR ESKUMENEN MAPA

Egitasmo honekin Eusko Ikaskuntzak Eskubide kulturalak erreferentzia esparru gisa hartuta, parte-hartze kulturala sustatzeko kultur politiken ebaluaketa eta esku-hartzeko neurri zehatzen proposamenak egitea bilatzen du.

Horretarako, egitasmoak helburu espezifikoko hauek zehaztu ditu:

COMPOSICIÓN

Dirección científica colegiada

- Xabier Erize, sociolingüista, doctor en Filología.
- Carlos Vilches, sociólogo, doctor en Sociología

ANÁLISIS CUALITATIVO: GRUPOS TRIANGULARES

Para responder a los objetivos propuestos en este proyecto es necesario combinar la metodología cualitativa con la cuantitativa. La acción principal de este año es el análisis cualitativo. Para analizar los discursos emergentes o en construcción, los grupos triangulares, también llamados grupos socializados, son especialmente adecuados y trabajaremos con ellos.

Preveremos realizar diferentes grupos triangulares. Para su diseño se tendrán en cuenta cuotas selectivas como: edad, género, origen, conocimiento/desconocimiento del euskera, o comarcas de Navarra.

Las sesiones, guiadas y coordinadas por los directores científicos del proyecto, se grabarán digitalmente y se transcribirán literalmente. Por último, a los textos generados en las sesiones grupales se les aplicará el análisis del discurso.

INFORME FINAL

Informe escrito que recoja todo el proceso.

3) INVESTIGACIÓN Y SEMINARIO: DEFINICIÓN DEL MARCO DE LOS DERECHOS CULTURALES Y MAPA DE COMPETENCIAS

Este seminario, se enmarca en el proyecto a través del cual Eusko Ikaskuntza pretende realizar propuestas concretas de intervención y evaluación de las políticas culturales para promover la participación cultural, tomando como marco de referencia los Derechos culturales.

El proyecto establece los siguientes objetivos:

- Eskubide kulturalen errelatoan sakondu kultur politiken marko gisa, euskal kulturaren egungo beharizanetara egokituz.
- Parte-hartze mota desberdinen erradiografia egitea eta eskumenen mapa irudikatzea.

Azkenengo gai honi lotuta, Kulturaren esparruan zer gobernantza-eredu dauden identifikatuko dira, baita kultur eskumenak ere, euskararen eremu osoaren gobernantza-egiturak kontuan hartuta, baina aintzindaria izan zen Nafar eredu kontutan hartuta.

Lurraldez lurralde zer eredu dauden, lurralde bakoitzaren barruan zer azpigobernantza eredu dauden, eta nolakoa den kultur politiken eremuan gobernantza-eredua aztertuko da.

Besteak beste, galdera hauei erantzungo zaie:

- Zer lankidetzamota eraikitzen dira kulturako eragile korporatiboen eta agintarien artean?
- Zer-nolako elkarlana egituratu da kulturaren eremuko eragile publiko eta pribatuen artean?
- Zer-nolako hitzarmen daude gobernantza-gune ezberdinen artean?
- Zein da egungo kulturaren eskumenen mapa?

GAUZATUKO DIREN EKINTZAK

BATZORDE ZIENTIFIKOA

Mintegiaren hausnarketa markoa, diseinua eta aktiboen zerrenda prestatzeko aurreko ediziorako osatutako Batzorde Zientifikoaz baliatuko gara, zeinetan Eusko Ikaskuntzako Eskubide Kulturalen proiektuaren talde eragileetako partaide eta adituak egongo diren. Nafarroako errealitatearen gaineko ezagutza dutenak aintzatetsiz, Euskal Herriko beste errealitateekin etorkizuneko aukerak eta premiak alderatzeko oinarriak izateko, beste lurraldeetako kideak ere hartuko dutela parte.

- Profundizar en el relato de los derechos culturales como marco de las políticas culturales, adaptándolas a las necesidades actuales de la cultura vasca.
- Realización de una radiografía de los diferentes tipos de participación y representación del mapa competencial.

En relación con esta última cuestión, a través del seminario propuesto se identificarán los modelos de gobernanza existentes en el ámbito de la Cultura, así como las competencias culturales, teniendo en cuenta las estructuras de gobernanza del conjunto del territorio del euskera, pero con especial énfasis en el pionero ejemplo de Navarra.

Se analizarán los modelos territoriales, y los modelos de sub-gobernanza en el ámbito de las políticas culturales. Se responderán, entre otras, a las siguientes preguntas:

- ¿Qué tipos de colaboración se construyen entre los agentes corporativos culturales y las autoridades?
- ¿Qué tipo de colaboración se ha articulado entre los agentes públicos y privados del ámbito cultural?
- ¿Qué tipo de convenios existen entre diferentes espacios de gobernanza?
- ¿Cuál es el actual mapa competencial en el ámbito de la cultura?

ACCIONES A DESARROLLAR

COMITÉ CIENTÍFICO

Para la elaboración del marco de reflexión, diseño e identificación de agentes del seminario nos apoyaremos en el Comité Científico constituido para la edición anterior, en el que participarán expertos del grupo promotor del proyecto sobre "Derechos y Políticas Culturales" de Eusko Ikaskuntza. Se contará con agentes con conocimiento específico de la realidad cultural de Navarra, pero participarán también miembros de otros territorios de Euskal Herria, para poder así comparar las ventajas y necesidades del modelo respecto a otras realidades territoriales.



Batzorde Zientifikoaren eginbeharrak:

- Eragile gakoaren identifikazioa eta haienganako hurbilketa, konfiantza eta konplizitateak eta lankidetzarako bideak sortuz.
- Mintegiaren edukiaren prestaketa.

ERAGILEEN IDENTIFIKAZIOA ETA
SARETZEAK

Abiapuntuko adostasunak eta elkarrenganako konfiantza, ulermena, legitimitatea eta konpromisorako hasierako zorua lortzea garrantzitsua izango da. Horretarako, bigarren foro honetan solasean jarriko dira eremu ezberdinetako aditu eta arituen artean hasieratik konfiantza esparru bat eraikitzeko.

Kultur eragileen bizipenetatik eta jardunetik galderak, gakoak eta proposamenak jasoko dira, kultur eragileekin abiatutako sarete lana sendotzeko.

MINTEGIA

Deskribapena:

Mintegiaren helburu nagusia, diagnosi bat egitea da, kultur eskumenen mapa bat osatuz eta eragileekin kontraste baten bitartez.

Aurkezten den mintegian, kultur eskubideen lege markoak aztertuko dira, espezifikoki Nafarroako Eskubide Kulturalei buruzko Foru Legea oinarri hartuta.

Kuantitatiboki eta kualitatiboki aditu eta arituekin bilgune esanguratsua bilduko da aipatutako markoaren definizio partekatu zilegia bermatzeko. Indar berezia jarriko dugu Nafarroako eremu ezberdinetako pertsona eta kolektibo gako eta anitzak elkartzeko euren arteko konfiantza testuingurua eraikitzeko asmoarekin.

Metodologia:

Parte hartze metodologiaren bitartez, gogoeta eta deliberazioan oinarritzen den foroa burutuko da.

Funciones del Comité Científico:

- Identificación y aproximación a los agentes clave, generando confianza, complicidades y cauces de colaboración.
- Elaboración del programa y contenidos del seminario.

IDENTIFICACIÓN Y GENERACIÓN DE REDES

Será importante alcanzar consensos de partida y una base de confianza mutua, comprensión, legitimidad y compromiso entre expertos y expertas de diferentes ámbitos y disciplinas.

De las vivencias y práctica de los agentes culturales se recogerán las dudas, claves y propuestas que refuercen la cohesión entre los diferentes agentes culturales.

SEMINARIO

Descripción:

El objetivo principal del seminario es realizar un diagnóstico, elaborando un mapa de competencias culturales y un contraste con los agentes.

En el seminario propuesto se analizarán las leyes marco relativas a derechos culturales, utilizando como marco específicamente la pionera Ley Foral de Derechos Culturales de Navarra.

Se reunirá a personas expertas y agentes, que cuantitativa y cualitativamente supongan un punto de encuentro representativo, garantizando así un diagnóstico plural compartido.

Metodología:

La dinamización del foro de reflexión y debate, se realizará a través de una metodología participación innovadora.

AZKEN TXOSTENA

Azken txosten honetan mintegiaren emaitza kualitatibo eta kuantitatiboak jasotzeaz gain, kultur eskubideen eta kultur politiken inguruan adituei egindako elkarrizketen ondorioetan oinarrituta, egingo den kontrastea jasoko da. Horretaz gain, sortutako sarearen etorkizunerako aktiboaren irakurketa eskainiko da.

G) JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmen hau sinatzen den unean Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde horretako kide izanen dira Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren ordezkariak eta Eusko Ikaskuntzaren ordezkariak.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren izenean:

- Euskarabideko zuzendari kudeatzailea edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeburua izanen da.
- Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeko idazkaria izanen da.
- Euskara Sustatzeko Atalburua, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordekidea izanen da.

Eusko Ikaskuntzaren izenean:

- Eusko Ikaskuntzako lehendakaria, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.
- Eusko Ikaskuntzaren Nafarroako lehendakariordeak, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.
- Eusko Ikaskuntzako zuzendaria.

Jarraipen batzordea gutxienez urtean bitan bilduko da, lehenbizikoa, hitzarmen hau sinatzen denean; bertan, Eusko Ikaskuntzak urteko lan programa aurkeztuko du, Hitzarmen honen F idatz-zatian zehazturikoaren arabera. Bigarren bilkura urte bukaeran egingen da, eta

INFORME FINAL

Este informe además de recoger los resultados cualitativos y cuantitativos del foro, recogerá el resultado del contraste sobre las conclusiones de las entrevistas realizadas a expertos y expertas en relación a los derechos y políticas culturales. Además, se ofrecerá una lectura de los activos de futuro para la red creada.

G) COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

En el momento de la firma de este convenio se formará una Comisión de Seguimiento que estará formada por representantes de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y representantes de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

Por parte de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera:

- El director gerente de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como Presidente.
- La directora del Servicio de Planificación y Promoción del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como Secretaria de la Comisión.
- La jefa de la Sección de Promoción del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como vocal.

Por parte de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos:

- El presidente de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, o representante designado por el mismo, que actuará como vocal.
- El vicepresidente de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos en Navarra, o representante designado por el mismo, que actuará como vocal.
- El director de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

La Comisión de Seguimiento se reunirá al menos dos veces al año, una primera, a la firma del presente Convenio, donde Eusko Ikaskuntza presentará su Programa Anual de Trabajo a realizar, según lo que se especifica en el apartado F de este Convenio, y



bertan Urteko memoria aurkeztuko du Eusko Ikaskuntzak, onetsia izan dadin.

H) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza 2023ko abenduaren 31 baino lehen ordainduko da, diruz lagunduko diren gastuak justifikatu ondotik. Edozein kasutan, ordainketaren kopurua justifikatutako kopuruaren araberakoa izango da.

I) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATU

Emango den dirulaguntza Dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritako baldintzen arabera justifikatuko da, dagokion epean eta ondoren zehazten diren dokumentuen bidez:

a) Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuan aurkeztuko da, behar diren bide administratiboak erabiliz, dagokion ordainketa egin ahal izateko. Dokumentazio hori aurkezteko epea, 2023ko azaroaren 21ean bukatuko da.

b) Langile gastuak justifikatzeko Eusko Ikaskuntzako langileek egitasmoari emandako orduak zerrendatuko dira. Dokumentua Zuzendari Orokorrak sinatu eta zigilatuko du. Horrekin batera nominak, Gizarte-segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZ atxikipenak aurkeztuko ditu.

c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horiei batera fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak, bai eta ordainketa agiria ere, atxikiko dira.

d) Gastu ez-zuzenak, eta horien barnean bulegoko materiala, alokairua, aseguruak eta halako gastuak, justifikatzeko gastuen azalpenak eta zenbatekoak aurkeztuko dira, horiei dagozkien ordainketa agiria atxikirik.

una segunda reunión que se celebrará al final de año, donde se presentará la Memoria Anual para su aprobación.

H) ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El abono de la subvención de 55.000 euros se realizará antes del 31 de diciembre de 2023, previa justificación de los gastos correspondientes. En todo caso, el importe a abonar dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada.

I) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La justificación de la subvención concedida, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan:

a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada en Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, por las oportunas vías administrativas para proceder al abono respectivo. El plazo para la presentación de dicha documentación finaliza el 21 de noviembre de 2023.

b) La justificación de los gastos de personal se realizará mediante la presentación de una relación de horas reales dedicadas al proyecto por el personal de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, firmada y sellada por el director general, sellada por la entidad y acompañada de las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF.

c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntará las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

d) Los gastos indirectos, entre los que se incluyen útiles de oficina, luz, alquiler, seguros y otros análogos, se acreditarán mediante la presentación de una relación de conceptos e importes, acompañada de los correspondientes justificantes de pago.

Mota horretako gastuen inputazioa % 0,29koa izango da, honi atxikirik doan Aurrekontuan zehazten den banaketaren arabera.

Faktura eta gainerako agiriak modu korrelatiboan zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren ordenu berdinean aurkeztuko dira.

Orobat, diruz lagundutako egitasmoak bukatu ondoren eta dirulaguntza kobratu ahal izateko, Eusko Ikaskuntzak azaroaren 21a (barne) baino lehen F atalean ageri den azken txostena aurkeztuko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari, ezarritako helburuak bete ote diren ikuste aldera.

J) GARDENTASUNA

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien %20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro. Horretarako, 1.2 eranskinen 4. eredia bete beharko dute, gardentasun betebeharrari buruzko adierazpena, alegia.

Aurreko atalean ezarri diren kopuru mugak gainditzen diren edo ez aintzat hartzerakoan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo bere erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntzen kopuru guztia gehituko da. Dirulaguntza hainbat urtekotan egiten den kasuetan, ondorio hauetarako aurrekontu-ekitaldi bakoitzean emandako kopurua kontatuko da, eta ez batura osotara. Negozio kopurua edo erreferentziako urteko aurrekontua, ondoko magnitudeen artean zenbateko txikiena duena izango da:

a) Aurreko urteko negozio kopurua edo gauzaturiko aurrekontua.

La imputación de estos gastos será del 0,29 %, según desglose establecido en el Presupuesto adjunto.

Las fotocopias de las facturas y demás documentos justificativos de gasto se deberán numerar de forma correlativa y presentarse en el mismo orden que el que figura en la relación de gastos.

Además, una vez realizados los proyectos subvencionados, y con el fin de proceder al cobro de la subvención, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos presentará a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, antes del 21 de noviembre (incluido), el informe final mencionado en el apartado F que incluirá la valoración del cumplimiento de los objetivos previstos.

J) TRANSPARENCIA

Las entidades privadas a que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros, o cuando las ayudas o subvenciones percibidas representen al menos el 20% del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros, para lo cual deberán cumplimentar el modelo 4: Declaración sobre la obligación de Transparencia que figura en el Anexo 1.2.

A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado anterior, se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio o presupuesto anual de referencia, será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

a) La cifra de negocio o presupuesto ejecutado del año anterior.



b) Hala badagokio, dirulaguntza ematen duen entitatearen organo eskumendunak onetsitako negozio kopurua edo aurrekontua.

Bi gorabehera hauek batera dituen entitate onuradunak, modu telematikoan aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari zuzenduta, jakinarazpena jaso edo, kasua bada, dirulaguntza eman izanaren ebazpena argitaratzeko egunetik hasita hilabeteko epean, jarraian zerrendatzen den informazioa:

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.

b) Organo horiek osatzen dituzten kideen zerrenda.

c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptutan banatuta. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan bildutakoa izanen da.

d) Kargudun bakoitzaren dedikazio araubidea gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetarako.

e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Aurreko atalean deskribatzen diren gorabeherak ematen ez direlako, entitatea ez bada gardentasun betebeharraren mendeko, aitortpena aurkeztu beharko du, hori adieraziz.

Entitate onuradunak emandako informazioa Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren Gobernu Irekiko Atarian argitaratuko da eta eskura izanen da argitaratu eta urte betean zehar. Muga 15 hilabetekoa izanen da, informazioa kudeatzeko organoan sartzen den unetik hasita. Epe hori iraganda, argitaratzearen ardura duen unitateak ofizioz erretiratuko du eta, ez balu hala egiten, entitate onuradunak eska dezake erretira dadila eta, gehienez ere, eskabidea jasotzen den unetik hasita hilabeteko epean eginen da.

b) En su caso, la cifra de negocio o presupuesto aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

Las entidades beneficiarias en las que concurren estas dos circunstancias, deberán presentar de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y dirigida a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, en el plazo de un mes contado desde la notificación o, en su caso, fecha de publicación de la resolución de concesión de la subvención, la información que se relaciona a continuación:

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.

c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas, percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación la información será de las que figuren en sus presupuestos o plan económico-financiero.

d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección, de cada uno de sus cargos.

e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

En el caso de que la entidad no esté sujeta a la obligación de transparencia al no concurrir las circunstancias descritas en el apartado anterior, deberá presentarse una declaración en tal sentido.

La información facilitada por las entidades beneficiarias será publicada en el Portal de Gobierno Abierto de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y será accesible durante 1 año desde su publicación, con el límite de 15 meses desde su entrada en el órgano gestor de la información. Transcurrido dicho plazo, la unidad responsable de su publicación la retirará de oficio, y si no lo hiciera, la entidad beneficiaria podrá solicitar su retirada, que deberá producirse en el plazo máximo de un mes desde la solicitud.

Entitateak, segidako dirulaguntzen onuraduna izan bada jardunaldi berean, ez du informazioa berretsi beharko dirulaguntza bakoitzaren kasuan, salbu eta hasieran eman ziren datuak aldatzen badira.

Onuradunak informazioa emateko duen betebeharra ez betetzeagatik izan daitezkeen balizko ondorio zigortzaileak galarazi gabe, ez betetze horrek emandako dirulaguntza ordaintzea galaraziko du, aurrerakinak barne eta, kasua bada, emandako kopuruak itzultzea ekarriko du, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoarekin bat.

K) DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ZEHAPEN PROZEDURA

Jarraipenari, itzulketari eta zehapen prozedurari dagokionez, Dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera jokatuko da, eta zehazki ondokoan ezarritakoaren arabera:

- II. titulua, dirulaguntzak itzultzea, I. kapitulua, itzulketaren gainean, 34., 35., 36. eta 37. artikulua.
- III. titulua, dirulaguntzen jarraipena, I. kapitulua, organo kudeatzaileek egin beharreko jarraipenaren gainean, 38. eta 39. artikulua. II. kapitulua, finantza-kontrolaren gainean, 40. eta 41. artikulua.
- IV. titulua, arau-haustea eta zehapenak, I. kapitulua, arau-hausteen gainean, 42. artikulua. II. kapitulua, zehapen araubidearen gainean, 43., 44., 45., eta 46. artikulua.

L) DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari dirulaguntzaren onspenaren hasieratik eman ere. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuaren parte-hartzea Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez. Aipamen hau Nafarroako Gobernuak sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat eginen da eta jardura

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente.

Sin perjuicio de las eventuales consecuencias sancionadoras que se pudieran derivar del incumplimiento de las obligaciones de información por el beneficiario, este incumplimiento impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral de Subvenciones.

K) REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

En cuanto al seguimiento, reintegro y procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones y más concretamente lo dicho:

- En su Título II, Reintegro de las subvenciones, el Capítulo I, del reintegro en los artículos 34, 35, 36 y 37.
- En el Título III, Seguimiento y control de las subvenciones, el Capítulo I, seguimiento por parte de los órganos gestores en los artículos 38 y 39. Capítulo II, Control financiero en los artículos 40 y 41.
- En el Título IV, Infracciones y sanciones, el Capítulo I, Infracciones en el artículo 42. Capítulo II, Régimen sancionador los artículos 43, 44, 45 y 46.

L) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCION

La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará de acuerdo con las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se



zabaltzen den denbora guztian mantenduko da.

M) DIRULAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabideari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO
KONTSEILARIA
CONSEJERA DE RELACIONES CIUDADANAS

Ana Ollo Hualde

mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.

M) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

EUSKO IKASKUNTZAKO LEHENDAKARIA/
LA PRESIDENTA DE EUSKO IKASKUNTZA-
EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE
ESTUDIOS VASCOS

Ana Urkiza Ibaibarriaga

AURREKONTUA

2023EKO JARDUERAK	Kopurua	%
1. ANIZTASUNAREN KUDEAKETA DEMOKRATIKOA NAFARROAN		
TALDE ERAGILEA	2.570	
Zuzeneko gastuak	2.020	
Talde Eragilearen gastuak (Proiektuaren Zuzendaritza, Koordinazioa eta Talde Teknikoa)	2.020	
Zeharkako gastuak	550	
MINTEGIA	5.783	
Zuzeneko gastuak	5.283	
Mintegiaren koordinazioa, diseinua, dinamizazioa eta parte-hartzaileak	4.733	
Zerbitzuen kontratazioa	550	
Zeharkako gastuak	500	29%
ANIZTASUNAREN KUDEAKETA DEMOKRATIKOAREN LIBURUXKA	7.412	
Zuzeneko gastuak	7.012	
Liburuxkaren koordinazioa, diseinua, erredakzioa eta maketazioa	7.012	
Zeharkako gastuak	400	
GUZTIRA 1	15.765	
2. NAFARREN ARTEKO BALIO PARTEKATUAK		
ZUZENDARITZA ZIENTIFIKOA	7.250	
Zuzeneko gastuak	6.550	
Zuzendaritza Zientifikoaren gastuak (Proiektuaren Zuzendaritza eta Koordinazioa)	6.550	
Zeharkako gastuak	700	
TALDE TRIANGULARRAK	16.986	
Zuzeneko gastuak	16.236	
Taldearen osaketa, diseinua eta koordinazioa	16.236	
Zeharkako gastuak	750	44%
GUZTIRA 2	24.235	
3. IKERKETA ETA MINTEGIA: KULTUR ESKUBIDEEN MARKOAREN ZEHAZTAPENA ETA KULTUR ESKUMENEN MAPA		
TALDE ERAGILEA: KUDEAKETA AKADEMIKOA	5.650	
Zuzeneko gastuak	5.500	
Talde Eragilearen gastuak (Proiektuaren Zuzendaritza, Oinarritzko txostena, Koordinazioa eta Talde Teknikoa)	5.500	
Zeharkako gastuak	150	
MINTEGIA	5.750	
Zuzeneko gastuak	5.600	
Foroaren diseinua, koordinazioa, dinamizatzaileak eta hizlariak	5.600	
Zeharkako gastuak	150	27%
TXOSTENA	3.600	
Zuzeneko gastuak	3.500	
Txostenaren diseinua, erredakzioa eta maketazioa	3.500	
Zeharkako gastuak	100	
GUZTIRA 3	15.000	
GUZTIRA	55.000	100%
Eusko Ikaskuntzaren gastuen aurrekontua 2023	1.130.096	
Diruz lagundutako proiektuari inputatutako zeharkako gastuak guztira (Euskarabidea)	3.300	
Inputatutako zeharkako gastuak guztira (Euskarabidea), Eusko Ikaskuntzaren aurrekontu guztiaren gainean	0,29%	



PRESUPUESTO

ACTIVIDADES 2023	Importe	%
1. GESTIÓN DEMOCRÁTICA DE LA DIVERSIDAD EN NAVARRA		
GRUPO MOTOR	2.570	
Gastos directos	2.020	
Gastos del grupo motor (Dirección del proyecto, Coordinación y equipo técnico)	2.020	
Gastos indirectos	550	
SEMINARIO	5.783	
Gastos directos	5.283	
Coordinación del seminario, diseño de las reuniones y dinamización	4.733	
Contratación de servicios	550	
Gastos indirectos	500	29%
LIBRO GESTIÓN DEMOCRÁTICA DE LA DIVERSIDAD EN NAVARRA	7.412	
Gastos directos	7.012	
Coordinación, diseño, redacción y maquetación	7.012	
Gastos indirectos	400	
TOTAL 1	15.765	
2. VALORES COMPARTIDOS DE LA CIUDADANÍA NAVARRA		
DIRECCIÓN CIENTÍFICA	7.250	
Gastos directos	6.550	
Gastos dirección científica (Coordinación y dirección del proyecto)	6.550	
Gastos indirectos	700	
GRUPOS TRIANGULARES	16.986	
Zuzeneko gastuak	16.236	
Creación de grupos, coordinación y diseño,	16.236	
Zeharkako gastuak	750	44%
TOTAL 2	24.235	
3. INVESTIGACIÓN Y SEMINARIO: DEFINICIÓN DEL MARCO DE LOS DERECHOS CULTURALES Y MAPA DE COMPETENCIAS		
GRUPO MOTOR: GESTIÓN ACADÉMICA	5.650	
Gastos directos	5.500	
Gastos del grupo motor (Dirección del proyecto, Documento base, Coordinación y equipo técnico)	5.500	
Gastos indirectos	150	
FORO	5.750	
Gastos directos	5.600	
Diseño del Foro, coordinación, dinamización y ponentes	5.600	
Gastos indirectos	150	27%
INFORME	3.600	
Gastos directos	3.500	
Diseño, redacción y maquetación del informe	3.500	
Gastos indirectos	100	
TOTAL 3	15.000	
TOTAL	55.000	100%
Eusko Ikaskuntzaren gastuen aurrekontua 2023	1.130.096	
Diruz lagundutako proiektuari inputatutako zeharkako gastuak guztira (Euskarabidea)	3.300	
Inputatutako zeharkako gastuak guztira (Euskarabidea), Eusko Ikaskuntzaren aurrekontu guztiaren gainean	0,29%	



II. eranskina / Anexo II

[Gardentasun betebeharrari buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Organoen osaketari eta dedikazioari buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Karguen ordainsariei buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Declaración sobre la obligación de transparencia \(PDF\).](#)

[Declaración sobre la composición órganos de gobierno y dedicación \(PDF\).](#)

[Declaración sobre las retribuciones de los cargos \(PDF\).](#)